




Ikasgela

Legazpi



**LEGAZPIKO
UDALA**

Zer zerbitzu eskaintzen da?

12 pertsonentzako
bakarka ikasteko gunea.
Mahai batzuk daude.
Mahai gainean entxufe bat dago,
portatila entxufatu ahal izateko.
Wifia ere badago.

Non dago ikasteko gela?


Bikuña Jauregian dago.
Bertako areto nagusia egokitu da,
ikasketa gela bezala.

Noiz erabil daiteke?

**Maiatzaren 13tik ekainaren 25era
ekainak 23 izan ezik (alardeagatik).**

Astegunetan: 8.00 - 20.00

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 9.30-20.00



Nork erabil dezake ikasketa gela?

Ziklo formatiboetan edo unibertsitatean ikasten ari diren
18 urtetik gorako legazpiarrek.

Talde lana egiteko erabil daiteke?

Ez, bakarka ikasteko gela da.

Zerbitzua erabiliko dutenei
**asebetetze-maila ezagutzeko
inkesta pasako zaie.**

Zer egin behar dut ikasketa gela erabiltzeko?

1. **Eskaera orri orokorra** bete eta udaletxean entregatu behar duzu, Udaletxeko web gunean (Zure zerbitzura - eskaera orriak atalean) edo Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan eskuragarri. Zer eta non ikasten ari zaren azaldu beharko duzu.
2. Momentuan bertan ikasketa gela irekiko duen **txartela** eta **araudia** emango dizute.

Non eta noiz atera dezaket txartela?


Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan,
maiatzaren 9tik aurrera,
astelehenetik ostiralera: 7.30-15.00.

Zerbait ordaindu behar da?

Ez, txartela doakoa da.
Denboraldia amaitzean, **txartela itzuli beharko duzu**,
Herritarren Arreta Zerbitzuan,
astelehenetik ostiralera: 7.30-15.00.

Txartela izanda, ikasteko tokia izango dut?

Txartelarekin finkatutako egunetan eta ordutegian ikasketa gela erabiltzeko aukera izango duzu, baina elkarteetan bezala, erabiltzaile kopurua eskaintzen den tokia baino handiagoa da. Beraz, toki librerik badago geratzerik izango dut, bestela ez.



Txartela utz diezaioket nire lagunari?

Ez, txartela pertsonala.
Ezin du beste pertsona batek erabili.
Txartelik ez baduzu,
ezin duzu ikasketa gela erabili.

Txartela galtzen badut, zer egin behar dut?

Abisua lehenbailehen eman beharko duzu Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, sarrera baimena baliogabetzeko, eta beste bat atera beharko duzu.

Ikasgela erretserba dezaket?

Ez, ezin da erretserbarik egin.
Bertaratzean ikusiko duzu ea tokirik dagoen.

Bertan zaudela, momentu batean irten behar baduzu, gehienez, 30 minututan gorde ahal izango duzu tokia.

Ezingo da tokirik gorde eguerditik (bazkaltzeko ordua) arratsaldera arte, ezta egun batetik bestera ere.

Plaza librerik badago, ikasketa gela erabiltzea izango duzu, finkatutako egun eta orduetan, ordu-mugarik gabe.

Araurik badago?

Ikasgelako erabiltzaileen **betebehar orokorrak** errespetatu behar dira, hala nola:

- Bakarka ikasteko ikasketa gela da. Beraz, isiltasuna gorde behar da.
- Mugikorrek itzali edo isiltasunen jarri behar dira. Hitz egin behar baduzu, kalera atera zaitetz.
- Txartela pertsonala da eta ezin zaio beste pertsona bati utzi. Txartelik ez baduzu, ezingo duzu ikasketa gela erabili.
- Ezin da erretserbarik egin. Gehienez, 30 minututan gorde ahal izango da tokia, erabiltzailea bertan ez dagoela.
- Ezingo da tokirik gorde eguerditik (bazkaltzeko ordua) arratsaldera arte, ezta egun batetik bestera ere.
- Plaza librerik badago, ikasketa gela erabiltzea izango da, finkatutako egun eta orduetan, ordu-mugarik gabe.
- Ezin da erre. **Ezin da jan**. Urik baino ezin da edan.



Arauk errespetatzen ez badira, Udalak ahalmena izango du, sarrera baimena baliogabetzeko eta behar diren neurriak hartzeko.

Txartela erabiltzen ez badut, zer egin behar dut?

Txartela itzuli beharko duzu, eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan entregatu beharko duzu.

Ikasgelako azken erabiltzailea banaiz, zer egin behar dut?

Ikasgelako argiak itzali eta atea itxi.

Txartelekin arazoren bat badago, zer egin behar dut?

Herritarrentzako Arreta Zerbitzura joan zaitetz eta azaldu iezaezu daukazun arazoa.